

AKTA / ACTA
GIZARTE KONTSEILUA/ CONSEJO SOCIAL

Deialdia egin duena Convoca	Daniel Zulaika Presidentea / Presidente
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2022ko, urtarrilak, 25 / 25 de enero de 2022 Kursaal – (4+5) Aretoan / Kursaal – sala (4+5) 16:30 (1. deialdia) /16:30 h (1ª convocatoria) 17:00 (2. deialdia) /17:00 h (2ª convocatoria)
Amaiera ordua Hora de finalización	19:07 h

GAI-ZERREENDA:
ORDEN DEL DÍA

1.- 17:00-17:05	
Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartu	Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior
2.- 17:05-17:25	
Erakundeetako ordezkarien hitzak	Palabras de los representantes institucionales
<ul style="list-style-type: none"> • DONOSTIAKO UDALA ENEKO GOIA Donostiako Alkatea • BILBOKO UDALA OIHANE AGIRREGOITIA Herritarren Arreta eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako zinegotzi delegatua • VITORIA-GASTEIZKO UDALA BORJA RODRIGUEZ Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen saileko zinegotzi ordezkaria 	<ul style="list-style-type: none"> • AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN ENEKO GOIA Alcalde de Donostia / San Sebastián • AYUNTAMIENTO DE BILBAO OIHANE AGIRREGOITIA Concejala Delegada Área de Atención y Participación Ciudadana e Internacional • AYUNTAMIENTO DE VITORIA- GASTEIZ BORJA RODRIGUEZ Concejal de Participación, Transparencia y Centros Cívicos

3.- 17:25-17:50	
Bartzelonako Gizarte Kontseilua MONTSERRAL MORERA Consell de Ciutat-eko presidenteordea eta Barcelonako Consell d'Associacions-en presidentea	El Consejo de Ciudad de Barcelona MONTSERRAT MORERA Vicepresidenta del Consell de Ciutat i presidenta del Consell d'Associacions de Barcelona
4.- 17:50-18:10	
Bilboko Hiri Kontseilua OIHANE AGIRREGOITIA Zinegotzi Ordezkaría Herritarren Arreta eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako saila	El Consejo Cívico de la villa de Bilbao OIHANE AGIRREGOITIA Concejala Delegada Área de Atención y Participación Ciudadana e Internacional
5.- 18:10-18:30	
Gasteiz Udalerriko Gizarte Kontseilua LEIRE ZUGAZUA JOSE LUIS OCHOA Gasteiz Udalerriko Gizarte Kontseiluaren ordezkariak	El Consejo Social del municipio de Vitoria-Gasteiz LEIRE ZUGAZUA JOSE LUIS OCHOA Representantes del Consejo del Municipio de Vitoria-Gasteiz
6.- 18:30-18:50	
Donostiako Gizarte Kontseilua DANIEL ZULAIKA Presidentea Donostiako Gizarte Kontseilua	El Consejo Social de Donostia /San Sebastián DANIEL ZULAIKA Presidente Consejo Social de Donostia / San Sebastián
7.- 18:50-19:15	
Eztabaida, ondorioak eta saioaren amaiera	Debate, conclusiones y cierre de la sesión

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

AGIRREZABALA	ISABEL	TURISMO SOZIJETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo)
AMONDARAIN	YOANNA	GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (ADSIS FUNDAZIOA)
ARANETA	AITZOLE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA
ARCELUS	OIHANE	ELKARGO PROFESIONALEK COLEGIO PROFESIONALES COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALA
ARZALLUS	M. NEKANE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ
ARZALLUS	MARIA SOLEDAD	HIRITARRA /CIUDADANA
ARZELUS	ANDER	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
BARCENA	FÉLIX	ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION)
BERNARAS	AMAIA	GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA
BERZOSA	JUAN CARLOS	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE (AIETE)
ECHEZARRETA	ARRATE	FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI)
FERNANDEZ	MIREN ARANZAZU	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK)
GARCÍA	IÑIGO	MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops)
GARCIANDIA	PEIO	MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN
GOIA	ENEKO	DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN
IRABIEN	JOSUNE	EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
JOHN	BELKIS	ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS)
KORTA	KEPA	DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN
LAGÉ	CRISTINA	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE
LEKUONA	PILAR	LEHENDAKARIORDEA - VICEPRESIDENCIA ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA)
LICEAGA	PAUL	ADEGI
OTEGI	KORO	GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA
TELLEZ	OSCAR	CADENA SER
VILES	JUAN RAMON	PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA CONCEJAL DELEGADO DE PARTICIPACION CIUDADANA
ZULAIKA	DANIEL	LEHENDAKARIA - PRESIDENTE HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO

ETORRI DIRENAK / ASISTENTES: (BOTORAKO ESKUBIDERIK GABE / SIN DERECHO A VOTO)

AGIRREGOITIA	OIHANE	BILBOKO HIRI KONTSEILUA CONSEJO CÍVICO DE LA VILLA DE BILBAO
ALONSO	JUAN CARLOS	GASTEIZKO UDALA AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ
MORERA	MONSERRAT	BARTZELONAKO GIZARTE KONTSEILUA CONSEJO DE CIUDAD DE BARCELONA
OCHOA	JOSE LUIS	GASTEIZ UDALERRIKO GIZARTE KONTSEILUA EL CONSEJO SOCIAL DEL MUNICIPIO DE VITORIA-GASTEIZ
ZUGAZUA	LEIRE	GASTEIZ UDALERRIKO GIZARTE KONTSEILUA EL CONSEJO SOCIAL DEL MUNICIPIO DE VITORIA-GASTEIZ

BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:

ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

		AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA)
		ELA SINDIKATUA
		KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES
AIZPURUA	ANDER	KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL)
ANTON REMIREZ	RAUL	NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN
APAOLAZA	XABIER	OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA (Genozidioaren biktimen elkarte)
ARANBURU	HARKAITZ	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI(AMARA)
ARRIETA	MADDI	LAB
ARRILLAGA	AINHOA	MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA
ARTOLA	GEMA	GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI)
BARBA VERA	SANTIAGO	HIRITARRA /CIUDADANO
CABALEIRO	BEGOÑA	INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus)
CARRERE	REYES	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU
CIGANDA	PEDRO	ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION)
COROMINAS	BORJA	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP
DIAZ	LALA	BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Asade Elkarte)
DIAZ	MANU	KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS- (FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL)
DIEZ	JOSÉ M^a	UGT
DIEZ MINTEGUI	FERNANDO	HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo)
DÍEZ MUIÑO	RICARDO	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE

ERAÑA	JESÚS M ^a	BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu)
FORNIES	HAIETT	GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES
GARCÍA	JOSE M ^a	CCOO
GARCÍA	CARLOS	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
GARCIA CERRATO	LETICIA ROSIBEL	HIRITARRA /CIUDADANA
GARCÍA-VELILLA	RAFAEL	UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkartea/Asociación Defensa Patrimonio)
GOMEZ	BORJA	KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket)
GOMEZ SAN JOSE	MARIA TERESA	HIRRITARRA /CIUDADANA
GONZALEZ	IGOR	DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN
GONZALEZ	ZURINE	EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA)
INSAUSTI	AIMAR	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
IRAOLA	ANDONI	REAL SOCIEDAD
IRIGARAY	ESTHER	GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA
LEZA	IMANOL	EUSKO TREN
LUQUIN	ELENA	GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA)
MALKORRA	MIKEL	MINUSBALIOTASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS
MARTINEZ	KINO	GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA
MARTINEZ	IÑAKI	GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA
MARTINEZ DE ARTOLA	PEDRO	MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC)
MARTINEZ ETXABEGUREN	LUIS ANTONIO	HIRITARRA /CIUDADANO
ORMAZABAL	EDURNE	TABAKALERA
PEREZ IRAZUSTA	ICIAR	OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea)
PILAPANTA	GABRIEL ESTEBAN	HIRRITARRA /CIUDADANO
RIEZU	XABIER	DEUSTOKO UNIBETSITATEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO
RIÑÓN DIEZ	JOSE M ^a	RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS
SALABERRIA	AITOR	KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia)
SÁNCHEZ	JOSE MANUEL	AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN
SÁNCHEZ	MIKEL	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkartea (MORLANS)
TABERNA	DAVID	DIARIO VASCO
TELLERIA	JOAQUIN	PASAIKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES
URBIETA	USOA	IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA)

DONOSTIAKO UDALEKO: LEGE ZUZENDARIA / DIRECCION JURIDICA:

Juan Carlos Etxezarreta

DONOSTIAKO UDALEKO: ZINEGOTZIAK / CONCEJALES - CONCEJALAS

M^a Jesús Idoeta

GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /

SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

Judith Moreno

Sonia Galache

Arantza Vázquez

PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	POLITIKOAK POLÍTICAS-POLITICOS Emakumezkoak / Mujeres = 5 Gizonezkoak / Hombres = 2
	HERRITARRAK CIUDANÍA Emakumezkoak / Mujeres = 11 Gizonezkoak / Hombres = 8
	TEKNIKARIAK TÉCNICAS Y TÉCNICOS Emakumezkoak / Mujeres = 5 Gizonezkoak / Hombres = 3

Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

<p>1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea</p> <p>17:06an, Gizarte Kontseiluko presidenteak, Daniel Zulaikak, bertaratutakoak agurtu ditu eta bilerari hasiera eman dio.</p> <p>Jarraian, aurreko bileraren aktak onartzea proposatu du, horren inguruko oharrik ez badago.</p> <p>Akta onartutzat jo da.</p>	<p>1. Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior</p> <p>A las 17:06, el presidente del Consejo Social, Daniel Zulaika, saluda a las personas presentes y declara abierta la sesión.</p> <p>A continuación, propone la aprobación del Acta de la sesión anterior, salvo que haya algún comentario al respecto.</p> <p>El acta queda aprobada.</p>
--	--

Ondoren, bileraren planteamendua labor azaldu ondoren, erakundeen ordezkarietara egin die, agur egin dezaten; lehenik eta behin, Eneko Goia Donostiako alkateari eman dio hitza.

2. Erakunde-ordezkarien hitzak

17:09an, Eneko Goia hiriaren alkateak hitza hartu du eta bertaratu izana eskertu die hirietako ordezkarietara, baita Gizarte Kontseiluko kideei ere.

Bileraren garrantzia azpimarratu du eta kontura ekarri du lankidetzara partekatua garatzeko prozesua, EAEko hiru hiriburuek abian dutena, gure indarguneak identifikatzeko eta proiektu komun batean batzeko.

Jarraian, Gizarte Kontseiluko presidentek Oihane Agirregoitia andreari eman dio hitza (Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saileko zinegotzi delegatua da Oihane Agirregoitia).

Oihane Agirregoitiak 17:13an hartu du hitza eta, hasteko, eskertu du gonbidapena, baita esperientziak gainerako hiriekin partekatzeko abagunea ere. Era berean, adierazi du parte-hartzea Gobernu irekiaren euskarrietako bat dela, baita balioetako bat ere Bilboko Balioen Gutunean. Halaber, herritarren beharrak eta nahiak entzutearen, konfiantza sortzearen eta partekatzearen garrantzia aipatu du.

Ondoren, Donostiako Gizarte Kontseiluko presidentek Borja Rodríguez aurkeztu du, Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen saileko zinegotzi ordezkaria; Borja Rodríguez ezin izan da bertaratu eta bideo bidez parte hartzen du; bere hiriko Gizarte Kontseiluak – partaidetzarako udal organo nagusiak– azken urteotan egin duen jardura nabarmendu du, eta gaur

Seguidamente, tras una breve introducción sobre el planteamiento de la jornada, emplaza a las y los representantes institucionales a realizar su saludo, cediendo en primer lugar la palabra a Eneko Goia, Alcalde de Donostia / San Sebastián.

2. Palabras de las y los representantes institucionales

A las 17:09 Eneko Goia, alcalde de la ciudad toma la palabra agradeciendo a las y los representantes de las ciudades su presencia, así como la asistencia de las y los miembros del Consejo Social.

Pone énfasis en el interés de la sesión y trae a colación el proceso de desarrollo de colaboración compartida que las tres capitales vascas tienen en marcha para identificar nuestras fortalezas y unir las en un proyecto común.

A continuación el presidente del Consejo Social cede la palabra a Oihane Agirregoitia, concejala delegada del Área de Atención y Participación Ciudadana e Internacional del Ayuntamiento de Bilbao.

Oihane Agirregoitia toma la palabra, a las 17:13, agradeciendo la invitación y la oportunidad de compartir experiencias con las demás ciudades. Señala así mismo, que la participación es uno de los pilares del Gobierno abierto y uno de los valores de la Carta de Valores de Bilbao. Se refiere también a la importancia de escuchar las necesidades y deseos de la ciudadanía, de crear confianza y compartir.

A continuación el presidente del Consejo Social de Donostia / San Sebastián presenta a Borja Rodríguez, concejal de Participación, Transparencia y Centros Cívicos de Vitoria-Gasteiz, quien no ha podido asistir de forma presencial y participa a través de un video, destacando la actividad desarrollada en los últimos años por el Consejo Social, el principal órgano de participación municipal, de su ciudad y poniendo en

egun funtzionatzen duten parte hartzeko organoen (*Auzoguneen* eta *Elkarguneen*) balioa azpimarratu du.

Hitzaldi horren ondoren, 17:20an, Gizarte Kontseiluko presidentek bidea eman dio bilkuraren hurrengo zatiari, non aurkeztuko baitira hirietako gizarte kontseiluen esperientziak; lehenik eta behin, Montserrat Morera Bartzelonako *Consell de Ciutat*-en presidenteorde eta *Consell d'Associacions*-en presidente denari eman dio hitza. Bestalde, bilera grabatzen ari dela eta geroago *youtube*-n ikusi ahal izango dela esan du.

3. Bartzelonako Hiri Kontseilua

Montserrat Morerak, tauletara igo eta gero, eskertu du gonbidapena, baita esperientziak partekatzeko aukera ere.

Aurkezpen baten laguntzaz, hitzaldia hasi eta XVIII. mendera jo du, eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko eta hiria gobernatzeko asmoz elkartzen ziren 100 gizon handiren Kontseilua gogorarazteko. Aipatu duenez, gaur egun, Bartzelonako Hiri Kontseilua 119 pertsonak osatzen dute eta alkatea da kontseiluburua.

Aipatu Gizarte Kontseiluak, besteak beste, Udalari aholkatzen dio udal politikaren eta kudeaketaren ildo nagusiak zehaztean, Udal Jarduketa Plana eztabaidatzean, Partaidetza Arautegia edo Udal Aurrekontua prestatzean; era berean, parte hartzeko prozesuen deialdiak egiten ditu, eta beste partaidetza organo batzuei laguntzen die.

Bere osaera legealdi bakoitzean eraberritzen da, genero parekotasunaren, lurralde banaketaren eta adinaren irizpideei jarraikiz. Funtzionamendua antolatzeko, osoko bilkura bat, batzorde iraunkor bat eta lantaldeak dauzka (berariazkoak eta aldi baterakoak).

valor los órganos de participación existentes, los denominados *Auzogunes* y *Elkargunes*.

Tras esta intervención, a las 17:20 el presidente del consejo social da pie a la siguiente parte de la sesión en la que se presentarán las experiencias de los consejos sociales de las ciudades, cediendo en primer lugar la palabra a Montserrat Morera, vicepresidenta del *Consell de Ciutat* y presidenta del *Consell d'Associacions* de Barcelona. Por otra parte, indica también que la sesión se está grabando y que posteriormente estará disponible en *youtube*.

3. El Consejo de la Ciudad de Barcelona

Montserrat Morera, sube al estrado y agradeciendo la invitación y la oportunidad de compartir experiencias.

Apoyada en una presentación, comienza su disertación y se retrotrae al s.-XVIII para recordar al Consejo de 100 pro-hombres que se reunían para debatir, dirimir y dirigir la ciudad. Señala que, en la actualidad, el Consejo de la Ciudad de Barcelona, formado por 119 personas y presidido por el o la alcaldesa.

Dicho Consejo Social, entre otras tareas, asesora al Ayuntamiento en la definición de las grandes líneas de la política y la gestión municipal, debate sobre el Plan de Actuación Municipal, el Reglamento de Participación o el Presupuesto Municipal; igualmente convoca procesos participativos, y presta apoyo a otros órganos de participación.

Su composición se renueva cada legislatura y sigue criterios de paridad de género, distribución territorial y edad. Su funcionamiento se organiza a través de un plenario, una comisión permanente y grupos de trabajo, (específicos y temporales).

Bukatzeko, Montserrat Morerak bideo bat erakutsi du.

17:43an, Daniel Zulaikak Oihane Agirregoitia, Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saileko zinegotzi delegatua, gonbidatu du tauletara igotzera.

4. Bilboko Hiri Kontseilua

Oihane Agirregoitiak hitza hartu du eta, aurkezpen baten laguntzaz, azaldu du partaidetzak, Gobernu Irekiaren euskarria denez, hiriarentzat duen garrantzia; Bilbok partaidetza eredu propioa garatu du, herritarrek parte har dezaten eta haiei hitza emateko, horretarako, hainbat mekanismo, esparru (Hiri Kontseilua, barrutiko kontseiluak, arloko kontseiluak eta beste foro batzuk) eta tresnak jarrita.

Jarraian, Bilboko Hiri Kontseiluaren egitura azaldu du: gehienez 85 kide izan ditzake, eta alkatea da kontseiluburua. Era berean, eta kontseiluak egiten dituen jardueri dagokienez, kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko organoa da, alkatetzaren menpeko proiektuetan arreta jartzen duena.

Ildo horretan, aipatu du Agintaldiko Plana, baita honako hauek ere: hiriko proiektu estrategikoak, Seguritasunaren aldeko Ituna, Hiri Antolaketako Plan Orokorra, Berdintasunaren Ordenantza, Bilbao 30 estrategia, Hiriko Ekitaldien Politika eta Bilbao *Balioen Hiria* proiektua; horiek dira, besteak beste, Hiri Kontseiluak azken urteotan egindako lanaren adibideak.

Bukatzeko, hobetu beharreko kontu moduan, partaidetza maila handiago bat duen kontseilua, dinamikoagoa, lortzea aipatu du, hura osatzen duten pertsonen gaitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Montserrat Morera finaliza su intervención con un video.

A las 17:43 Daniel Zulaika emplaza a Oihane Agirregoitia, concejala delegada del Área de Atención y Participación Ciudadana e Internacional del Ayuntamiento de Bilbao a subir al estrado.

4. El Consejo Cívico de la villa de Bilbao

Oihane Agirregoitia, toma la palabra y, apoyada en una presentación, hace hincapié en la importancia de la participación, como un pilar del Gobierno Abierto, para la ciudad; añade que Bilbao ha desarrollado un modelo propio de participación ciudadana, en su apuesta por implicar y dar voz a la ciudadanía, estableciendo diferentes mecanismos, espacios (el propio Consejo Cívico, los consejos de Distrito, los Consejos Sectoriales u otros foros) y herramientas.

Presenta a continuación la estructura del Consejo Cívico de la villa de Bilbao, el cual puede estar constituido por hasta 85 personas, presididas por la o el alcalde. Así mismo y en relación a las actividades desarrolladas por dicho consejo, indica que es un órgano consultivo y deliberante, que pone el foco en los proyectos que dependen de alcaldía.

En este sentido, señala al Plan de mandato y los proyectos estratégicos de ciudad, al Pacto por la Seguridad, el Plan General de Ordenación Urbana, la Ordenanza de Igualdad, la estrategia de Bilbao 30, la Política de Eventos de Ciudad o el proyecto Bilbao *Balioen Hiria*, entre otros, como ejemplos en los que se ha trabajado desde el Consejo Cívico en los últimos años.

Finaliza mencionando como reto de mejora, el conseguir un consejo más participativo y dinámico, para aprovechar al máximo el potencial de las personas que lo constituyen.

18:00etan, Daniel Zulaikak Leire Zugazua Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluko ordezkariari eman dio hitza.

5. Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseilua

Gonbidapena eta esperientzia honetatik ikasteko aukera eskertuta, Leire Zugazuak, aurkezpenari ekin dio; hasteko, Gasteizko Gizarte Kontseilua sortzeko prozesua azaldu du, bere egituraren bilakaera, kontseiluaren funtzionamendua, baita herritarren partaidetza hirian garatzen den markoa ere: Herritarren Parte-Hartzearen Araudi Organikoa, Herritarren Partaidetzarako Udal Plana eta hirian dauden parte hartzeko bideak, hala nola Gizarte Kontseilua bera, *Auzoguneak* (garai bateko lurralde kontseiluak), *Elkarguneak* (lehenagoko arloko kontseiluak), “Vitoria-Gasteiz *Hobetuz*” edo partaidetza bidezko aurrekontuaren programa eta parte hartzeko prozesuak, besteak beste.

Gizarte Kontseiluaren osaerari dagokionez (kide bakar bat ere ez da ordezkari politikoa), esan du Gasteizen 63 toki erakunde txiki daudela (udalerrria osatzen dutenak) eta haiek ere badutela ordezkaritza aipatu Gizarte Kontseiluan; era berean, “sindikoa”, hau da, herriaren defendatzailea (hiri horren berezitasuna Euskal Autonomia Erkidegoan), bera ere bada Gizarte Kontseiluaren kide.

Jarraian, Gizarte Kontseiluaren egitekoak azaldu ditu, hala nola zerga ordenantzen proiektuei eta aldaketei buruzko txostenak prestatzea, aurrekontuen urteko proiektua, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO), udal proiektu estrategikoak, herritarrei egiteko kontsultak, baita parte hartzeko organo desberdinen funtzionamenduaren eta partaidetza planaren jarraipena egitea ere.

A las 18:00, Daniel Zulaika cede la palabra a Leire Zugazua, representante del Consejo del Municipio de Vitoria-Gasteiz.

5. Consejo Social del municipio de Vitoria-Gasteiz

Tras agradecer la invitación y la oportunidad de aprender de esta experiencia, Leire Zugazua comienza su exposición, apoyada en una presentación, explicando el proceso de creación del Consejo Social de Vitoria-Gasteiz, la evolución de su estructura y su funcionamiento, así como el marco en el que se sustenta la participación ciudadana en la ciudad: el Reglamento Orgánico de Participación, el Plan Municipal de participación ciudadana y los cauces de participación que existen en la ciudad, como son el propio Consejo Social, los *Auzogunes*, (a modo de los antiguos consejos territoriales), *Elkargunes* (los anteriores consejos sectoriales), el programa de presupuesto participativo “Vitoria-Gasteiz *Hobetuz*” o los procesos participativos, entre otros.

En el marco de la composición del Consejo Social (en la que no hay ningún representante político), comenta que en Vitoria-Gasteiz existen 63 entidades locales menores (que forman parte del municipio) y que cuentan también con representación en dicho Consejo Social y, del mismo modo, el “sindico”-la figura de defensoría vecinal (característica singular de esta ciudad en el País Vasco) también forma parte del Consejo Social.

Explica a continuación las funciones del Consejo Social, como son la elaboración de informes preceptivos sobre los proyectos y modificaciones de las ordenanzas fiscales, el proyecto anual de presupuestos, el Plan General de Ordenación Urbana-PGOU, los proyectos estratégicos municipales y las consultas ciudadanas, así como el seguimiento del funcionamiento de los diferentes órganos de participación y del plan de participación.

18:12an, José Luis Ochoak, Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluaren ordezkariak, hitza hartu du, kontseiluaren jarduerari lotutako zenbait zenbaki emateko; hain zuzen, bilkuretako parte-hartzaileen kopuruak eta partaidetza organoen osaera aipatu ditu. Arreta berezia jarri du *Elkarguneen* eta *Auzoguneen* funtzionamenduan eta zereginak egiteko baliatzen dituzten metodologietan.

Halaber, egindako aurrerakuntzak azalduta, bukatzeko, etorkizunerako zenbait erronka aipatu ditu, adibidez, parte hartzeko organoek udalerrri mailako erabakiak hartzean eragin handiagoa izatea, partaidetza areagotzea, pluraltasuna *Elkargune* eta *Auzoguneetan*, Gizarte Kontseiluari buruzko komunikazioa –herritarrei zuzendutakoa– hobetzea.

Arreta eskertuta, aurkezpena bukatu du honako esaldi honekin: *“Bakarrik ibiliz gero, azkarrago joango zara; taldean ibiliz gero, urrunago iritsiko zara”*.

6. Donostiako Gizarte Kontseilua

18:20an, **Daniel Zulaikak**, Donostiako Gizarte Kontseiluko presidentea, bere aurkezpena hasteko, honela definitu du partaidetza organo horren eginkizuna: *“herritarren eta udalbatzaren arteko elkarrizketa, hiria hobetzeko”*.

Jarraian azaldu ditu Gizarte Kontseiluaren lehentasunezko ildo estrategikoak, oraingo legealdiari begira: *“adinekoak, belaunaldi erreleboa, etorkinak, klima aldaketa eta auzoak”*. Etapa berri horren ekintzen artean, honako hau aipatu du: gaiei ikuspuntu desberdinetatik heltzea ahalbidetzen duten hainbat esaldi planteatzea, adibidez, *“Lau donostiarretik batek 65 urtetik gora dauzka”*. Egiten diren jardueren harira, lehenik eta behin, osoko bilkurak aipatu ditu, baita Batzorde Iraunkorraren bilkurak ere; osoko bilkuren dinamikotasuna areagotzen saiatu dela dio, Gizarte Kontseilua bera osatzen duten pertsonen eta arduradun politiko eta

A las 18:12 José Luis Ochoa, representante del Consejo del Municipio de Vitoria-Gasteiz toma la palabra aportando cifras relativas a la actividad realizada por el Consejo Social, sobre la asistencia a las sesiones y la composición de los órganos de participación. Deteniéndose en aspectos relativos al funcionamiento propio de los *Elkargunes* y *Auzogunes* y en las metodologías que emplean para el desarrollar sus funciones.

Se refiere también a los avances desarrollados y finaliza apuntando los retos a futuro, como que los órganos de participación tengan mayor incidencia en la toma de decisiones municipales, el aumento de la participación, la pluralidad en los *Elkargunes* y *Auzogunes* o las mejoras en comunicación a la ciudadanía sobre el Consejo social.

Tras agradecer la atención, finaliza su exposición con la siguiente frase *“Si caminas solo, irás más rápido; si caminas acompañado, llegarás más lejos”*.

6. Consejo Social de Donostia / San Sebastián

A las 18:20 **Daniel Zulaika**, presidente del Consejo Social de Donostia / San Sebastián, comienza su exposición definiendo la función de dicho órgano de participación como el *“dialogo entre la ciudadanía y el consistorio con el objetivo de mejorar la ciudad”*.

A continuación explica cuáles son las líneas estratégicas prioritarias del Consejo Social para la actual legislatura: *“mayores, recambio generacional, inmigrantes, cambio climático y los barrios”*. Y menciona, entre las acciones de la nueva etapa, el planteamiento de una serie de frases que permiten el abordaje de temas desde diversos puntos de vista como, por ejemplo, *“Uno de cada cuatro donostiarra tiene más de 65 años”*. Continuando con las actividades que se realizan, menciona en primer lugar las actividades plenarias y las de la Comisión Permanente; añade que se ha intentado dotar de un mayor dinamismo a las actividades plenarias,

teknikoen hitzaldi laburrak planifikatuz, bilkura bakoitzean landu behar diren gaien arabera.

Gizarte Kontseilua hiriaren estrategiarekin duen harremana aipatu du, baita Plan Estrategikoarekiko lotura ere; halaber, lantaldeak eta Gizarteratzeko Taldea aipatu ditu, baita beste jarduera batzuk ere, hala nola hitzaldiak antolatzea, pandemia aldiaren egiten jarraitu diren ekitaldiak, irratian emandako programa bereziak; bereziki azpimarratu du pandemiak hirian izan duen inpaktuari buruzko hausnarketa egiteko bilkuraren garrantzia, horretan egin baitzen “kalteen ebaluazioa” besteak beste, gizartea, ekonomia, enpresak, turismoa, mugikortasuna, kultura, kirola bezalako arloetan,... era berean azpimarratu du *“Gizarte Kontseiluko kide diren pertsonen jartzen duten balio erantsi handia (...), hiria nola dagoen azaltzen duten antenak direlako”*.

Labur azaldu ditu eman daitezkeen hurrengo urratsak eta, jarraian, begirada beste gizarte kontseiluetan jarrita, azalpen laburra eman du Parisko Gizarte Kontseiluari (*Le Conseil de Paris Citoyen*) buruz; bukatzeko, azpimarratu du zein garrantzitsua den herritarrek parte-hartzea, baita partaidetza organoek egiten duten lanaren berri gizartean ematea ere.

7. Eztatbaida, ondorioak eta bilkurari amaiera ematea

18:42an, Kepa Kortak, Estrategia Bulegoko zuzendariak, galderak eta/edo iruzkinak egiteko txanda ireki du.

Hitza hartu duten parte-hartzaileek arautegiari, jarduerari eta gizarte kontseiluen arteko desberdintasunei lotutako aldeak aipatu dituzte.

planificando intervenciones breves de las personas que componen el propio Consejo Social y de responsables políticos o técnicos según las temáticas a trabajar en cada sesión.

Menciona la relación del Consejo Social con la estrategia de la ciudad, con el Plan Estratégico, y a los grupos de trabajo, recordando el Grupo para la Inclusión, y otras actividades como la organización de conferencias, eventos que se han seguido desarrollando durante la pandemia, o los programas especiales emitidos por radio y, de manera especial, pone en valor la sesión desarrollada para reflexionar sobre el impacto de la pandemia en la ciudad, la “evaluación de daños” en ámbitos como el social, la economía, las empresas, el turismo, la movilidad, la cultura, el deporte,... y más aún, *“el gran valor añadido que aportan las propias personas que componen el Consejo Social (...), antenas que explican cómo está la ciudad”*.

Adelanta rápidamente los posibles próximos pasos y seguidamente, poniendo la mirada en otros consejos sociales, realiza una breve explicación sobre el Consejo Social de París-*Le Conseil de Paris Citoyen*, y finaliza haciendo hincapié en la importancia de la participación ciudadana, así como de la socialización de la labor que los órganos participativos llevan a cabo.

7. Debate, conclusiones y cierre de la sesión

A las 18:42, Kepa Korta, Director de la Oficina de Estrategia abre un turno para preguntas y/o comentarios.

A través de distintas intervenciones por parte de las personas asistentes, se alude a aspectos relativos al reglamento, actividades y diferencias entre los consejos sociales.

Adibidez, Bartzelonako Gizarte Kontseiluari dagokionez, arautegiaren aldaketez galdetu da, herritarrei ohoreak eta aintzatespenak emateko duen gaitasuna kontuan hartuta; alderdi politikoen ordezkariarik gabeko Gasteizko Gizarte Kontseiluari dagokionez, galdetu da nola antolatzen den Gizarte Kontseiluaren ordezkariaren eta hiriko ordezkari politikoen arteko lankidetzaz.

Halaber, hitz egin da lantaldeen bidez egiten den lan tematiko propioei buruz, eta nola errazten duten parte hartzea, nola egiten den aurrekontuen azterketa gizarte kontseiluetan, nahitaezkoak diren ala ez, ...; gizarte kontseiluek eta beren irizpenek tokiko gobernuetan eragiteko daukaten ahalmena ere aipatu da.

Ibilbide luzeko lorpenak aztertzeko adierazleak aipatu dira, baita etorkizunerako erronkak ere, hala nola tokiko gobernuetan inpaktu handiagoa bilatzea. Era berean, berriz ekarri da ahotara Gasteizko sindikoaren eredia, udalerrri mailako, baita Kataluniako udalerrien mailako "Ararteko" ere. Halaber, etorkinen ordezkariak Bilboko Gizarte Kontseiluan aipatu da.

Bukatzeko, Kepa Kortak bilkuraren laburpena egin du, gizarte kontseiluei buruzko esaldi labur batzuen bidez:

- Elkarrizketa, gizarte kontseilua hitz egiteko gunea da
- Pertsonak ez akitzea
- *Bilbao Balioen hiria*
- Elkarteen zeregina

Eta berriz errepikatu du José Luis Ochoak dagoeneko aipatutako hitzak: "Bakarrik azkarrago, baina taldean urrunago".

Así por ejemplo, en relación al Consejo Social de Barcelona, se pregunta por las modificaciones en el reglamento respecto a su facultad para proponer honores y reconocimientos ciudadanos; en relación al Consejo Social de Vitoria, en el que no hay representación política, se pregunta sobre la articulación entre la representación del Consejo Social y su actividad con la representación política de la ciudad.

Se habla también de los trabajos temáticos propios que se desarrollan a través de grupos de trabajo y cómo estos facilitan la participación, sobre cómo se desarrolla el análisis de presupuestos en los consejos sociales, si son preceptivos o no, ..., y también sobre la capacidad de influencia de los consejos sociales, y sus dictámenes, en los gobiernos locales.

Se mencionan indicadores para el análisis de los logros, que son de largo recorrido, y retos a futuro, como la búsqueda de un mayor impacto en los gobiernos locales. Así mismo, se trae a de nuevo a colación la figura del síndico, en Vitoria-Gasteiz, un "Ararteko" a nivel municipal y al de los municipios catalanes. Y se habla de la presencia de la representación de la inmigración en el Consejo Social de Bilbao.

Para finalizar, Kepa Korta sintetiza la sesión con unos breves enunciados sobre los consejos sociales:

- Diálogo, el consejo social es un espacio de diálogo
- No quemar a las personas
- *Bilbao Balioen hiria*
- El papel de las asociaciones

Y vuelve a repetir las palabras, ya citadas, por José Luis Ochoa: "Solo más rápido, pero acompañado más lejos".

Bilkurari amaiera ematea

Gonbidatuei eta Gizarte Kontseiluko kideei etorri izana eskertu eta gero, bilkuran parte hartu ezin izan dutenak gogoratuta, Daniel Zulaika presidenteak amaitutzat jo du bilkura, 19:07an.

Cierre de la sesión

Tras agradecer la presencia de las y los invitados, la asistencia de las y los miembros del Consejo Social, y con un recuerdo a quienes no han podido asistir a la sesión, el Presidente, Daniel Zulaika, cierra la sesión, a las 19:07 h.

Donostia / San Sebastián, 2022/01/25